

Elgoibar - 1273. zenb.  
XX. urtea - 2023-02-03



# Oles egitera gatoz

TOKIKOM

BARREN





elgoibarko  
herri eskola

# elkarrekin

Aurre-matrikulazioa: otsailaren 13tik 24ra  
Tel. 943 899 178 e-posta: zuzendaritza@elgoibarhe.net

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zalao Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Leire Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://www.facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://www.instagram.com/barrenaldizkaria)

Alex Segade

Kazetaria

## Urrunekoa ez da gertukoa



*"Marianetako itsas hobia animaliren bat eta organismo zelubakarrak aurkitu dituzte, baina oso gutxi dakigu horri buruz"*

Pasa den larunbatean unibertsoari eta espazioari buruzko hizketaldi luzea izan nuen lagunekin. Galaxiak gora, galaxiak behera, zulo beltzak han eta hemen... Eztabaidako momentu batean galdetu nien ea ez zitzaizen harrigarria iruditzen gure inguruan milioika kilometrotara dagoen zerbait hobeto ezagutzea Lur planetan daukagun edozer baino, eta Marianetako itsas hobia adibidea jarri nien. Itsas azpiko 11 kilometroko sakongune batean ez dakigu zer dagoen, baina James Webb teleskopioak argazki bat ateratzen du eta ez dakit zenbat distantziara dauden izarrak eta guzti ikus ditzakegu.

Ez da benetan liluragarria? Ez da gauza bera, argi dago, itsas azpian presioaren kontua dago eta hainbesteko distantziara makinak eramatea izugarri zaila da. Marianetako itsas hobia animaliren bat eta organismo zelubakarrak aurkitu dituzte, baina oso-oso gutxi dakigu leku horri buruz. Espedizioen batzuk egin dira hara, eta gehienak hobia sakontasuna neurtzeko izan dira besterik ez. Agian ez du interesik Marianetako itsas hobia jaisteko sekulako milioitza inbertitzea, eta bai Martera iristeko adibidez. Hain misteriotsua den hobia agian misteriotsua izaten jarraitzea interesatzen da, eta horregatik hobia jaisteko eta ondo aztertzeko ez da behar den teknologia garatu orain arte.

Marianetako itsas hobia munduko tokirik ezezagunetakoa da. Azkeneko jaietsiera, puntu sakonera, Vitiáz errusiar itsaspeko ez tribulatuak egin zuen 2020an. Zergatik ez urperatze gehiago egin? Askotan espazioa, planetak eta izarrak ikertzen pasatzen dugu denbora eta ez gara konturatzen gure planetan toki asko daudela ikertu gabe. Marianetako itsas hobia adibide bat baino ez da. Begirada urrunean jartzen dugu alboan duguna ikusi gabe. Zer diozue zuek? Gehiago merezi al du milioika kilometrotara dagoen zerbait aztertzea hemen alboan duguna aztertzea baino?

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus  
-----

#### Zaldibarko hondamenditik hiru urte

Zaldibarko zabortegea amildu eta Joaquin Beltran eta Alberto Sololuze langileak bertan hil zirenetik hiru urte beteko dira otsailaren 6an. Urteurrenaren bezperan, Zaldibar Argitu plataformak ekitaldia (musika emanaldia, lore-eskaintza eta hitzartzeak) antolatu du. Eitzagan egingo da, 12:30ean. Bertan, batetik, Joaquin

eta Alberto oroituko dituzte. Bestetik, interes publiko eta sozialak interes pribatuen gainetik jartzeko eskaera egingo da, eta Zaldibarren gertatutakoa berriz ez gertatzeko bermeak exijitu ere bai, erantzukizun publiko zein pribatu guztiak argitzeko eskatzeaz gain.

**A.I.Z**



#### **Begoña Gorriti Bergaretxe**

2023ko otsailaren 1ean hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarenagatik eta erakutsi duzunagatik,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***



#### **Ankora Sustaeta Usobiaga**

2023ko urtarrilaren 27an hil zen, 89 urte zituela.

***Portuan ondo ainguratutako ontzia zinen, Ankora,  
itsasaldi txarrei tinko eusten ziena.***

***Aingura askatu eta itsasoan galtzea erabaki duzu orain,  
baina, mollatik, beti hautemango zaitugu zeruertzean.***

Etxekoak

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)



943 744 112



688 655 658



### **Urazandiko eskaileretako baranda hondatuta dago:**

"Badira hiru bat aste gutxienez Urazandiko eskaileretan baranda hondatuta dagoela. Beste baranda bat lotu dute gune horretan eta horrelaxe dago denboran. Eskertuko genuke konpontzea".



### **Kantu Kolorek inauterietan emango duen saioa zergatik izango da leku itxian?:**

"Kantu Kolorekoek inauterietan eman behar duten emanaldia Herriko Antzokian izango da. Zergatik ez Maalan edo Kalegoen plazan?. Kaleak umez eta giroz betetzeko egunak dira inauteriak eta emanaldi horrek kalean izan beharko lukeela uste dut. Ia hurrengorako aintzat hartzen duten antolatzaileek". Kultura Sailera jo dugu eta azaldu dutenez, Kantu Kolore konpainiak berak jarritako baldintza izan zen emanaldia leku itxian egitearena. Udazken-negu denboraldian antzoki edo igerilekuetan aritzen dira, eguraldiagatik. Kultura Saileko arduradunek ez zuten baldintza hori gaizki ikusi, izan ere, inauterietan hotz egiten du askotan, eta gertatu izan zaie kalean antolatutako dantzaldietan oso



jende gutxi egotea. Gaineratu dute herritarrak kexatu izan direla hain justu horregatik ere, Herriko Antzokia bezalako leku bat izanik, inauterietako emanaldia kalean egiteagatik.



### **Txalo bat Belar Hostoak kontzertua eman zutenentzako:**

"A ze gozamen! Adinean aurrera goazenontzat oroitzapen oso polita izan zen Txomin Artolaren disko hura gogoratzea. Jon Gurrutxagaren ahotsean ederki geratu zen. Gainerako musikariak ere bikainak. Oso gustura egon ginen".



## Karakateko Parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia aho batez onartu du udalbatzak

Karakate landa-parke gisa kalifikatzeko argi berdea ematen duen Karakateko Parkea Babesteko eta Antolatzeko Plan Berezia onartu zuen joan zen astean Elgoibarko Udalaren Osoko Bilkurak. Karakate landa-parke gisa kalifikatzeko bidea zabaltzen du plan honek, Karakate-Irukurutzetan-Agerre Buru natura-intereseko eremua, Elosua Plazentziako estazio megalitikoak tumulu eta trikuharri ugarirekin, Izarraitz -Aizkorri-Aratz eta Izarraitz-Arnoko korridoreen zati bat eta bisoi europarrarentzat natura-intereseko eremu bat integratuz. Helburua da gune horretan dagoen arkeologia eta ondarea babestea. Plana behin betiko onartu dute.



### Elgoibarko Idazlan Lehiaketa martxan da

Elgoibarko Udalak, Kultura, Euskara, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailen bitartez, Elgoibarko VI. Idazlan Lehiaketa antolatu du, ikasleen artean euskaraz idazteko zaletasuna sustatzeko helburuarekin. 8 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeek hartu dezakete parte. Gaia librea izango da, baina euskaraz idatzitakoa, jatorrizkoa, aurrez saritu gabea eta argitaratu gabea. Lanak A4 neurrian, orriaren alde batetik idatzita eta ordenagailuz aurkeztu beharko dira, (LH3 eta LH4 mailetan idazlanak

eskuz aurkezteko aukera dago). Elgoibarko ikasleek ikastetxean bertan entregatu beharko dituzte idazlanak (hiru kopia), eta Elgoibartik kanpora ikasten ari direnek, berriz, zuzenean entregatu beharko dituzte lanak Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea, 2), goizez, 07:30etik 15:30era. Martxoaren 10a izango da parte hartzeko azken eguna. Sari bezala, 50 eta 120 eurora arteko bonuak banatuko dituzte, herriko dendetan erabiltzeko. Informazio gehiago: [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) / 943 744 366



### Puntu beltz bat argitu dute Lekueder parkea eta Trenbide kalearen artean

Trenbide kalea eta Lekueder parkearen artean, elizaren hegal batean dauden eskailerak puntu beltzat izendatuak zituen Elgoibarko Udalak, bereziki goikaldea, argitasun nahikorik ez zegoelako. Orain argi gehiago ipini dituzte txoko horretan, ingurua argituta herritarrentzako "erosoagoa eta seguruagoa" izan dadin.

## Elgoibarrek eta Mendarok tokiko eguzki-parke fotovoltaikoa sustatuko dute



**E**lgoibarko eta Mendaroko Udalek lankidetzaren protokoloa sinatzea onartu dute Ekiola Energia Sustapenak S.L.-rekin, plaka fotovoltaikoen energia-kooperatiba bultzatzeko. Herritarrei energia berdea, jasagarria eta 0 kilometrokoa eskuratzeko aukera eman nahi diete. Protokolo horretan zehazten dira udalen, Ekiolaren eta irabazi-asmorik gabeko kooperatibaren arteko lankidetzaren baldintzak. Lankidetzaren instalazio fotovoltaikoa eraikitzeke lizentziak eta baimenak kudeatzeko sortuko da. Erakundearen helburu soziala energia berriztagarria sortzea izango da, bai eta energia berriztagarria sortzen duten instalazioak sustatzea, eraikitzea eta ustiatzea ere, partaidetzazko eredu batean. Formula horri esker, denbora laburrean 1 MW eta 5 MW arteko potentzia duten energia-azpiegiturak egon ahal izango dira. Azken helburua kooperatibako kide diren pertsonak edo familiak instalazio fotovoltaikoei lotutako ekonomiaz aprobetxatzea da eta horietan kontsumo elektriko guztiaren baliokidea den energia-bolumena sortzea. Elgoibarko eta Mendaroko udalek bazkide laguntzaile gisa parte hartuko dute Kooperatiba honetan.

## Elgoibarko Baso Biziak elkartearen ekimenez arbolak landatuko dituzte bihar

Lurjabe bik Lurgaia Fundazioari lagatako bosna hektareako bi sailetan, Muskirutzu inguruan, arbolak landatzera deitu du Elgoibarko Baso Biziak elkarteak biharko.

Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira 9:00etan, eta handik autoak jendez bete eta landaketa lekuraino abiatuko dira. Izena emateko: [info@lurgaia.org](mailto:info@lurgaia.org). Arropa eta oinetako erosoak eramateko eskatu diete deialdira batuko direnei. Gainerako guztia, erremintak eta lanerako eskularruak, Lurgaia Fundaziokoek jarriko dituzte. Landaketa amaitu ondoren, hamarretakoa egingo dute.

## Jon Garatek irabazi du 'Goiena'-k antolatutako Elurretako Argazkien Lehiaketa



Debagoiena Komunikazio Taldeak Elurretako Argazkien Lehiaketa antolatu du, eta Jon Garate elgoibartarrak irabazi du. 120 argazki jaso dituzte lehiaketan, eta bi sari banatu dituzte, publikoaren saria eta epaimahaiarena. Azken hori jaso du Jon Garate Ondarrek lehiaketara aurkeztu zuen *Aloña, Belar menditik* izeneko zuri-beltzeko argazkiak. Epaimahaiak lehiaketako argazki irabazlearen kontrastea, argitasuna eta erabilitako teknika jarri ditu balorean. "Beharbada argazki sinplea dirudi, baina ondo pentsatua eta zaindutakoa da", azaldu dute. Oñatiko Soraluze jatetxean bi lagunentzako otordua izan da irabazlearentzako saria.

## Aitor Zabala ez da gehiago 'El Diario Vasco' egunkariko berriemailea izango



Aitor Zabalak 33 urte egin ditu *El Diario Vasco* egunkarian Elgoibarko berriemaile lanetan, eta urtarrila amaitzearekin batera, bukatu du bere ibilbidea. 1989ko ekainean idatzi zuen bere lehenengo kronika, eta amaiera honetan esker oneko hitzak izan ditu irakurleentzat eta modu batean edo bestean informazioa emateko berarengana hurbildu diren guztientzat. "Mila esker zuen fideltasunagatik. Agurrean gogoan zaituztet urte guzti hauetan korrespontsal honengana interesekoa izan zitekeen informazioarekin gerturatu zareten lagun guztiok. Nire lana izugarri erraztu duen iturri agortezina izan zarete. Horietako asko dagoeneko ez daude gurekin, baina denak ditut gogoan. Era berean, ez ditut aipatu eta goraiatu gabe laga nahi Elgoibarko elkarte eta kirol-taldeetan lanean diharduten emakumeak eta gizonak. Herria hobetzen duzuelako. Plazer bat izan da egiten duzuenaren bozgorailu izatea. Mila esker bidai honetan bidailagun izan zareten guztioi, baita zuek nahi izango zenuten moduan gairen bat landu ez dudala-eta huts egin diezuedala uste duzuen horiei ere. Agur guztioi, eta izan zoriontsu".

Edonola ere, Zabalaren kazetari etapa ez da hemen bukatzen, aurrerantzean *Noticias de Gipuzkoa* egunkariko berriemailea izango baita. *El Diario Vasco* egunkarian Jabi Leon egolibartarrak beteko du bere lekua.

### Ufaletan kaltetutako petrila berrituko dute Altzolan



Altzola auzoko bainuetxeko zumardian ibai ertzean zegoen petrila ia osorik eraman zuen urak 2021eko abenduaren hasierako ufaletan, eta geratu ziren zatiak uraren indarrak kaltetu egin ditu. Kaltetutako petrila iragazkorra ez den beste batekin ordezkatzeko proiektua idaztea eskatu zion Elgoibarko Udalak Injelan SL. ingeniari enpresari. Proiektuaren barruan sartzen da dagoen petrilaren zati bat eraistea, sastrakak kentzea eta beharrezko lur-mugimenduak egitea, eta, azkenik, hormigoi armatuzko petrila berri bat eraikitzea.

Elgoibarko Udalak lehiaketa publiko bidez esleitu dizkio obrak Bermeosolo S.A. enpresari, "eskaintzarik onena aurkeztu zutelako". Obra hiru zatitan egingo dute. Hormigoi armatuzko petrilak 69,99 metroko luzera garatua izango du, eta zoladuraren gainetik 1,10 metroko altuera.

Lanotarako 90.700 euroko aurrekontua onartu du Udalak, BEZa kontuan izan gabe. Obrak egiteko epea hiru hilabetekoa izango da. Obrak hasteko URaren (Uraren Euskal Agentziak) baimena behar dute eta ibaiaren ur emaria lanak egiteko maila egokian egotea. Baldintza horiek betetzen direnean hasiko dituzte lanak, Udalaren aurreikuspenen arabera, 2023. urtearen erdialdean.



## 24/7 plataformak batzarra egin du orain artekoa errepasatu eta aurrera begirakoak zehazteko

**A**nbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabaltzeko borrokan dihardu 24/7 plataformak eta martitzenean egin zuen urteko lehen batzarra. Orain arte egindakoaren errebasoa egin zuten eta hemendik aurrera egin asmo dituztenak ere aipatu zituzten. Besteak beste, alderdi politikoekin hitz egitea aipatu zuten. Elgoibarko anbulatorioan larrialdi zerbitzua eta 24 orduko etengabeko arreta berreskuratzeko; eta, osasun zerbitzu publikoa eta kalitatezkoa edukitzeko borrokan jarraituko dute.



### Hasi dituzte euskara eskolak Mendaron



Mendaron bertan euskara ikasteko aukera sortu dute aurten ere Mendaroko Udalak, UEMAK, Euskara Taldeak eta Arno Guraso Elkarteak elkarlanean. AEK Euskaltegiak emango ditu eskolak eta astelehenean hasi zuten ikastaroa, 10 ikaslerekin. Asteazkenetik lau egunetik jasoko dituzte eskolak. Era berean, Mendaroko Udalak dirulaguntzak emango ditu euskara ikasi nahi dutenentzat. Udarako, berriz, ikastaro trinko bat antolatzea aurreikusita dute.

### Mendaron kirolgune bat eraikitzeko aztertutako aukerak aurkeztuko ditu Udalak otsailaren 7an

Mendaron kirolgune bat eraikitzeko parte-hartzeko prozesua abiatu zuen Udalak iaz, eta 190 lagunek hartu zuten parte. Udaletik jakinarazi dutenez, mendarotarrek lehentasuna eman zioten kirol-gune bati, igerileku estali gabeei, bidegorriari eta futbol-zelaiari. Azaroan aurkeztu zituzten estali gabeko igerilekuentzako dauden aukerak, eta orain beste kirolgunearen berri emango dute: Futbol-zelai bat, gimnasio bat, aldagelak eta erabilera askotariko gainerako zerbitzu eta aretoak barne hartzen dituen kirol-gune integral baten proposamenak aurkeztuko dituzte martitzenean, 18:00etatik aurrera, udaletxeko areto nagusian. Mendaroko Udalak herritar guztiak gonbidatu ditu bileran parte hartzera.

### Jose Antonio Pires eta Pedro Oteiza garaile, Euskal Herriko Mus Txapelketako Elgoibarko kanporaketan

Zapatuan jokatu zuten Euskal Herriko Mus Txapelketako Elgoibarko kanporaketa, eta Jose Antonio Pires eta Pedro Oteizak irabazi zuten. 11 bikotek hartu zuten parte, eta Ibon Villanueva eta Zigor Bengoetxea izan ziren beste finalistak. Bi bikoteek hartuko dute parte Gipuzkoako kanporaketan. Deban jokatu dute, martxoaren 11n.

Mendaroko kanporaketa, bestalde, otsailaren 10ean jokatu dute, Aitzbeltz tabernan, 22:00etan. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko.



# JON GONZALEZ

## 'TXULI'

Kamioilaria

✍️ Ainara Argoitia

👤 Jon Gonzalez

Hormigoi-kamioiarekin hasi zen lanean, beste batzuentzat, baina 2001ean, "apustu handia egin" eta lortu zuen ametsa betetzea: obrako kamioia erostea. Geroztik autonomo gisa dabil Trans.O.Gui kooperatiban. Obra handietarako ibili ohi da normalean lanean, harria, lurra eta bestelako materialak garraitzen, baina alerta metereologikoa aktibatzen denean, egun hortarako aurrekusiak zituen zereginak laga eta Bidegiren agindutara jartzen da, kamioiari egokitzapen batzuk eginda. Errepideak garbitzen ibiltzen da halakoetan: behar denean, elurra kentzen, eta behar denean, gatza botatzen.



*“Lehen, hogeit bat irteera egiten genituen neguan, baina orain, egun solteak izaten dira”*

### **Zein da zuen lana? Nola antolatzen zarete?**

Bidegirekin hitzarmena sinatuta daukagu elurra datorrenean errepide nagusiak garbi mantentzeko. Hitzarmenean jasota daukagu azarotik apirilera bitartean, libre egon beharra daukagula behar gaituztenean esaten diguten lekura joateko, elurra kentzera edo gatza botatzera. Lan-eremua ere zehaztuta daukagu guk. Normalean, A8 autobidean, Ermutik Behobiarano, AP1 autobidean, Eibartik Eskoriatza arteko tartean, Leitzaranean, eta 636 errepidean, Bergararik Beasainera tartean, ibiltzen gara gure taldekoak. Hamabi orduko txandak egiten ditugu, eta gogorra da, bereziki gaez.

### **Zenbat urte daramatzazu neguan errepideak garbitzen? Aldaketarik igarri duzu tarte horretan?**

Aurten hamazazpigarren urtea dut egiteko honetan, eta bai, aldea igarri dut, bai. Lehen, gehiagotan deitzen ziguten, gehiagotan egiten zuelako elurra. Ni hasi nintzenean, astebetetz jarraian-eta izaten genuen kamioia prestatuta, eta denboraldi osoan hogeit bat irteera edo egiten genituen, baina orain, egun solteak izaten dira normalean, lau-bost eguneko lana. Esaten dute klima aldaketarekin muturreko fenomeno gehiago gertatuko direla, eta izango da, baina nik hori da igarri dudana momentura arte.

### **Nondik abiatzen zarete lanera? Nola prestatzen dituzue kamioiak?**

Izotza edo elurra iragarria dagoenean Zumaiako ordainlekura joaten gara eta han egiten dizkiogu egokitzapenak kamioiari, aurreko pala

eta gatz-zabaltzailea jarri. Han kargatzen dugu kamioia gatzez ere. Obra kamioietan joan eta gure kamioiak elurra kentzeko makina bihurtuta irteten gara handik, dagokigun lekura. Elur-maila 200-300 bat metrora iragartzen dutenean kooperatibako kamioilari guztiak jartzen gara martxan.

**Elurretara joatea gero eta ohikoagoa da gurean, baina ez gaude ohituta gure errepideak elurtuta ikustera. Nola moldatzen gara gidariok halakoetan?**

Errepidean denetarik ikusten da, egin eguraldi ona nahiz txarra, baina bai, bietakoak daude: badaude prudentzia handiz gidatzen dutenak eta badaude elurretan zoroarena egiten ibiltzen direnak ere, eta tokatzen zaigu tarteka istripuen lekuko izatea ere. Akordatzen naiz orain hiru-lau bat urteko elurtean Oikia pare horretan autopistako eskuineko erreila garbitzen ari nintzela nola jarri zitzaidan bat atzean pega-pega eginda, urduri itxura batean. Eta, halako batean, han hasi zitzaidan aurreratzen. Ikusten ari nintzen zer gertatu behar zen eta gertatu zen. Nire aurrean jo zuen bazterra. Sekulakoa hartu zuen.

**Elurteak izan direnetan askotan entzun ditugu bidaiariak kezaka. Beste herrialde batzuetan gutxiagorekin garbi izaten dituztela errepideak eta hemen hutsak kaosa eragiten duela. Zer diozu?**

Gertatu dira kaosak, baina ez horrenbeste errepide nagusietan, nik uste. Nik lanean daramadan denboran behintzat, uste dut behin bakarrik itxi behar izan dela A-8 autobidea orduerdi batez, eta istripu bategatik izan zen. Hemen herri barruetan sortzen dira arazo handiagoak, gutxirekin. Errepide nagusiak zabalik izanda ere, jendea hara iritsi ezinda gelditzea da hemen ohikoagoa.

**2018ko otsailaren 28ko elurtea datorkigu burura. Hogeita hamahiru urtean ez omen zuen aurrez halakorik egin. Sekulakoa bota zuen gaez, nahiz eguerdirako lurmenu ziren bazterrak. Zer oroitzapen duzu egun hartaz?**

Fenomeno bitxia gertatu zen orduan. Hemen, normalean 0-2 gradu artean egiten duenean botatzen du elurra, baina gau hartan hotz handia egin zuen, 0 azpitik bost gradurainokoa. Elurra hegotik sartu zen orduan, eta ez iparraldetik hemen ohikoagoa dena. Inork ez zuen espero horrenbeste egingo zuenik. Haize hotza zebilen Eribera aldean, fronte bat sartu zen eta haize

hori honantz ekarri zuen eta hementxe bota zuen elurra. Nik ez neukan ordura arte halakorik ikusita. Elur siku-sikua zen eta berehala itsatsi zen lurrera. Goizaldeko hirurak aldera hasi zen elurra suabe-suabe. Gu gatza botatzen ibili ginen ordura arte, baina ezer bota ez bagendu bezala izan zen. Lan handia izan genuen egun hartan eta denok ibili ginen martxan. Eta hala ere, kaos sentsazio hori izan zuen jendeak.

**Egiten ari zaretena utzi eta beste gauza batera jarri behar izaten zarete zuek denbora laburrean.**

Ez da erraza izaten. Eguerdian bidaltzen digute guri eguneko partea, zer eguraldi iragarpen dagoen eta zenbat kamioi beharko dituzten. Ordurako normalean gu gure lanean hasita egoten gara, eta endredua beti izaten da, baina beti topatzen dugu bidea.

**Esan duzu autopista bera eta autopistarako sarrerak garbitzen ibili ohi zarela bereziki, baina noizbait tokatu al zaizu elurrak sarri isolatuta laga ohi duen herriren batera iristea kamioiarekin. Nola hartu zaituzte halakoetan?**

Ez naiz ibili, eta ez dakit, baina leku horietan estimatuak dituzte gure egiteko berean dabiltzanak. Gurea moduko herrietan baserri auzoetarako errepideak garbitzen aritzen direnek ere esango dizute hori. Elurra polita da ikusteko edo astia hartu eta jolasera joateko, baina errepidera irten behar duenarentzat beti da endredua eta bereziki errepide sare nagusitik aparterago bizi direnentzat. Elurra gustatzen zait niri ere, baina elurra ari duela gaez errepidean ibiltzea beti da gogorra, baita elurra kentzen ari garenontzat ere. Fokuen argitara elurrak min egiten du begietan, nekagarria da.





# IKASGELAK HUTSIK IKASTETXEETAKO JAIAN

✍ Ainhoa Andonegi  
📷 Asier Orbea

Urtarrileko azken ostiralean ospatu zuten ikastetxeetako jaiak. San Juan Bosco Eguna, Elgoibar BH Institutuan, eta IMH Eguna, berriz, IMHn. Ikastetxeetako ikasgelak hutsik gelditu ziren, baina ikastetxeetako beste zenbait gune bete zituzten ikasleek. Eguraldiak ez zituen ikasleak hoztu, eta euren berotasuna igarri zen antolatutako ekintzetan. Antzerkia, futbol partidak, patata tortilla lehiaketa, futbolina, dardo jaurtiketa... denetarik izan zuten ikasleen jai eguna festa bilakatzeko. Argazki gehiago eta bideoa: [barren.eus](http://barren.eus)







## “Unibertsitatea izan da niretzat ‘Herri txiki, infernu handi’ saioa”

### ZUHAITZ GURRUTXAGA

Umoregilea eta telebistako aurkezlea

✍️ Aina Argoitia

Domekakoa izan zuen 'Herri txiki, infernu handi' saioko azken atala Zuhaitz Gurrutxagak (Elgoibar, 1980). Los Angelesen antzeztu zuen agurra zortzi urtean sozio izan duen Mikel Pagadirekin. Dena den, bera gabe ere, saioak jarraituko duela nabarmendu du. Miren Nogalesek (Zestoa, 1991) hartuko dio erreleboa.

**Zortzi denboraldi egin dituzu 'Herri txiki, infernu handi' saioko aurkezle lanetan. Badira urte batzuk telebistarako!**

Zaila da, bai, gaur egun telebistan horrenbeste urte egitea eta alde horretatik ezin pozago gaude. Hasi ginenean hamar atal grabatzea zen gure asmoa eta erronkatzat genuen hori bera ere, telebistan audientziak agintzen duelako eta hamarrera iristea ere zaila delako, baina azkenean 215 saio grabatu ditugu Euskal Herrian, eta Ameriketara grabatu ditugunak gehitu behar

zaizkio horri. *Herri txiki, infernu handi*, baina, ez da hemen amaitu eta horrek esan nahi du euskal herritarrek estimuan dutela. Igarri dugu fideltasun eta maitasun hori geuk ere, bai audientzietan, bai eta kalean ere.

#### Zenbat amama konkistatu dituzu?

Amamekin izan dudana konexioa izugarria izan da. Inoiz pentsatu izan dut telebistatik berriro deituko banindute gustura egingo nukeela amama edo amatxiekina saio bat.

**Hollywooden, zinemako izarren gailurrean, antzeztu zenuten Mikel Pagadik eta biok agurra. Erabakia hartua zenuen eta okerrena beharbada pasata, baina nola oroitzen duzu momentu hura?**

Nahi genuen zerbait hunkigarria izatea, baina tira, sentimenduak elkarri adierazten ez gara gu abilenak eta egin genuen ahal izan genuena. Erabakia hartu artekoa zaila izan zen. Gustukua nuen saioa, gustukua lana, baina iruditzen zitzaidan ziklo bat itxi beharra neukala eta erabaki hori hartzea ez zitzaidan, ez, batere erraza egin. Agurra, tira, baina aitortuko dizut agurraren osteko eszena neure begien aurrean grabatzen ikustea gogorra egin zitzaidalda. Miren Nogalesen

eta Mikel Pagadiren arteko solasaldia nola grabatzen zuten harri baten gainean jarrita ikusi nuen eta sentitu nuena berezia izan zen. Bertatik bertara ikustea norberak horrenbeste urtean bete duen lekua beste batek nola hartzen duen ez da erraza, nahiz eta lana lagatzea norberak erabaki eta sentitu ordezkioak norberak bezain ondo edo hobeto egingo duela. Akordatzen naiz mendi tontor hartatik burumakur jaitsi nintzela, bajoiak jota. Baina, tira, bukatu genuen eguna euskaldunon modura: parrandan.

**Danimarkatik ekarritako formatoa du saioak, hona egokitutakoa. Zein garrantzitsua den ondo egindakoa ondo kopiatzen jakitea ere, ezta?**

Bai, ez dakit danimarkarrek zer pentsatuko duten, baina bai, funtzionatu du behintzat. Uste dut formatu hura gurera egokitzen asmatu genuela eta hor zeresan handia izan zuela saioa euskaratik eta euskaraz sortzeak. Hizkuntza bakoitzak bere kodeak dauzka eta saio honek erdaraz ez zuen izango euskaraz izan duen arrakastarik.

**Orain hurrengo esan zenigun hain sentitzen zinela gustura saioan uste zenuela propio zeuretzat sortua izan zela. Zer eman dizu?**

Unibertsitatea izan da niretzat. Oso lan konpletoa izan da egin behar izan dudana: egin behar izan ditugu elkarrizketak, eta umoretik gainera, eta guk geuk idatzi behar izan ditugu emanaldietarako txisteak ere; beraz, gidoilari lanak eta aktore lanak ere egin behar izan ditugu, txiste horiek oholtza gainean defenditzen ere jardun garelako. Eta balio izan dit, era berean, neure burua ezagutzeko ere. Akordatzen naiz lehenengo denboraldian nola esan zidan batek enpatia handia erakusten nuela, bereziki adineko jendearekin. Enpatia zer zenik ere ez nekien nik eta hiztegian bilatu behar izan nuen. Egunerokoa ez dakit ni hain enpatikoa naizen beti eta hainbeste jartzen naizen besteen lekuan, baina adinekoak grabatzen konturatu naiz badudala haiekin sintonia on bat. Hain gustura jardun naiz aiton-amona denekin, askotan sentitu dudala neuretzat egindako saioa izan dela. Oso eskertua nago, maitasun handia jaso dudalako haiengandik, benetakoa gainera. Futbolari nintzela ere gelditzen ninduen jendeak kalean, baina beste maitasun bat zen, azalekoagoa eta zuriagoa. 80 urtekoak

*"Beste batek norberak horrenbeste urtean bete duen lekua nola hartzen duen ikustea ez da erraza, nahiz eta lana lagatzea norberak erabaki"*

ez daude gezurretan aritzeko. Haiek pentsatzen dutena esaten dute, izan ona nahiz txarra, eta gauza handia da haiei entzutea gu ikusi gabe ez zirela domeketan oheratzen. Hori da zortzi urte hauetatik gehien baloratzen dudana.

**Umorea egin duzue. Badu Ane Labakak umoreaz saiakera interesgarri bat: 'Algara mutilatuak' (Lisipe, 2021). Zer da zilegi eta zer ez umorean? Nola bizi izan duzu hori?**

Bai, erreparo handia izan diot beti umorea egiteari, oso lausoak iruditzen zaizkidalako umorearen marra gorriak. Norbaitekin barre egitetik norbaitetaz barre egiterako tartea hain da estua askotan, beldurra ere sentitu dudala, badagoelako gauza bat sekula barkatuko ez niokeena neure buruari: batzuk barrez edo txaloka jartzeagatik beste bat lotsaraztea. Beti izan dut alerta piztuta umorearekin, eta hala ere, seguru nago ez dudala beti asmatu; horregatik, barkamena eskatzen diet hemendik noizbait minduta sentitu direnei. Horretxek sufriarazi dit gehien. Beren etxeak eta bihotzak zabaldu dizkigute elkarrizketatuek eta ahalegindu naiz beti kontu handienaz jokatzeko, baina bai, aitortuko dizut kezka bat izan badut, hori izan dela beti. Zer den zilegi eta zer ez umorean? Neure buruaz umorea egiten ari naizenean sentitzen naiz ni erosoan. Nik buruko osasunaz barre egiten dut, baina neureaz. Askotan esaten da umoreak behetik gorakoa izan behar duela, goitik beherakoa baino gehiago, baina nik muga hor jartzen dut beti: neure buruaz bakarrik barre egitean. Ez nago ni honen inguruan lezioa emateko inori, baina nik modu honetan bizi dut umorea.

**Aipatu izan duzu Ameriketako grabatzea oparia izan dela zuretzat. Gutxienez bi badira egin dizkizuten opariak hortaz, Mendaroko saioa grabatu berritan aitortu zenigulako Aistian grabatu ahal izatea**

**izango zela zuretzat oparirik handiena.**

Aiastiaiko saioa emititu zenean telebista uzteko moduan nengoen ni, neure auzoa erakustea baino gauza garrantzitsuagorik ez zegoela sentitzen nuelako. Ni hain harro nago aiastiarra izateaz sentitzen dudala goia orduan jo nuela. Umetan, Euskal Herriko Itzulia gure auzotik pasatzen zenean, han egoten nintzen munduko txirrindulari onenak lau segundoan gure auzotik pasatzen ikusten, eta gauean, errepikapena ikusten nuen telebistaz. Zain egoten nintzen helikoptero irudietan noiz gure auzoa eta gure etxea ikusiko. Hiru segunduz agertzen ginen Euskal Telebistan eta ni harro! Pentsa zer den ordu t'erdiko saio batean norbere auzoa eta norbere auzokide eta senideak telebistan erakustea. Eta nik uste dut askok harrotasun hori sentitu dutela *Herri txiki, infernu handin* beren herria eta herrikideak ikusi dituztenean. Kanean askotan etorri zaigu jendea eurenera joatea eskatuz.

Zalantzarik gabe, oparia izan zen Aiastian grabatzea, Ameriketara grabatzea bestekoa edo handiagoa. Ameriketara oparia izan dela diot, ekoizleek erabaki zezaketelako beste bat bidaltzea hara, nik esana nielako uzteko asmoa nuela, baina ez, neuri eman zidaten aukera hori eta eskertzen diet. Hemendik hara joandako euskaldun askoren kontuak irakurriak eta ikusiak nituen aurrez, baina haiek bertatik bertara ezagutzea eta filmeetan horrenbestetan ikusitako parajeak neure begiz ikustea izugarria izan da.

**Nekea ere sumatu duzula onartu duzu.**

Sortzen ari den edonork daki hori zer den. Zuek ere ondo jakingo duzue BARRENEN zer den zenbaki bat inprentara bidali orduko hurrengoan buru-belarri jarri behar izatea. Halatsu ibili gara gu. Astero bi herritara joaten ibili gara. Asteartetan grabatzen genituen elkarrizketak eta eguenetan aurreko astean grabatutako herrira itzultzen ginen, jende-aurreko saioa grabatzera. Gurpil horretan ibili gara, eta askotan zertan ari nintzen konturatzeko astirik ere ez dut izan. Nekagarria egin zait astero sortzen ibili beharra, batez ere *Futbolistok* bakarriketarekin eta antzezlanarekin ere ibili naizelako aldi berean. Bakarriketaren eta antzerkiaren kasuan baduzu testu bat ikasia eta hor zabiz hara-hona testu bera defendintzen, baina bestea, etengabe sortzen ibiltzen hori, oso lan nekeza da. Energia gehien kentzen zidan

lana lagata, lasaiago nabil orain. Hala ere, ez dut telebistako atea itxi eta nork daki, deituz gero, akaso itzuliko naiz noizbait.

**Ziklo bat itxi nahi izan duzula esan duzu eta aurreratu duzu gimnasioan izena eman duzula 'Hankamehe' izateari lagatzeko, baina beste zeri heldu nahiko zenioke orain?**

Kar-kar. *Lehendakari gaia* obraren hainbat emanaldi ditugu lotuta Iker Galartza eta biok eta *Futbolistok* bakarriketarekin ere hor nabil. Eta horrez gain, liburu bat ere argitaratu nahi nuke; ondo bidean, aurtan. Ni neu ez naiz liburu bat idazteko gai laguntzarik gabe, baina zer kontatua badaukat eta laguntzarekin idatzi nahi nuke. Futbolaren zikloa itxi nahi dut eta badauzkat *Futbolistok* elkarrizketan konta ezin ditudan gauza asko interesgarri izan daitezkeenak, eta ari naiz egunero zerbait idazten.

**Horrenbeste lagun elkarrizketatuta zaila izango da, baina zer bi-hiru elkarrizketa dituzu bereziki gogoan?**

Gaur egun bikotekidea dudanari egin nion elkarrizketa da bat. Sekula egin dudan elkarrizketarik txarrena izan zen, oso urduri jarri nintzelako; *Nahieran* daukazue, zeuen begiz konprobatzeko. Elkarrizketa hartan ezagutu genuen elkar, eta huraxe izan zen bat-batean maitemintzea. Orain, ikusten dugunean, lotsa sentitzen dugu biok. Aitari egindakoa da bereziki gogoratzen dudana beste bat. Gure auzorako neuk proposatu nuen elkarrizketatuen zerrrenda, baina azken momentura arte ez nion aitari esan, banekielako besteei moduan bi aste aurretik esanez gero ezetza segurua zela. Hogei minuturen faltan konbentzitu genuen, eta sekula entzun gabe neuzkan bi-hiru kontu entzun nituen bere ahotik, nire jaiotzari eta jaioberritan izan nuen bihotzeko arazo bati buruzkoak. Hunkigarria izan zen oso. Hirugarren bat apartatzekotan Añorgan 104 urteko Joakina Uitziri egindako elkarrizketa esango nizuke. Magikoa izan zen.

**Hemen duzu aukera Elgoibarko eta Mendaroko ikusleei zerbait esateko nahi izanez gero.**

Eskerrik asko, audientzietan jaso dugun maitasun hori zuzenean agertu didazuelako kanean topo egin dugun aldira.



## EXPRESS ESKAINTZAK!

### BOSCH WTR85V91ES ARROPA LEHORGAILUA



A++

599 €

- 8 karga
- Bero-ponpa
- Auto-Dry
- Display LED
- Soft danborra
- Zimurren aurkako babesa
- Lehorketa delikaturako sistema

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dienziako prezioak. Produktuak agortu arte.

RPS 181/19



## KONTSULTATEGIA

“ *Zergatik ematen dit mina maisailezurak goizez esnatzen naizenean?* ”

Esnatu ondoren goizetan mina sentitzea ohikoa da. Patologia horri bruxismoa esaten zaio, hau da, baraila inkontzienteki estutzea eta hortzak karraskatzea, hortzak higatuz. Normalean, masailezurako, belarrietako eta garondoko minengatik detektatzen da. Ez da gaixotasun arriskutsua, baina batzuetan hortzetako lesio iraunkorrak edo iraupen luzeak eragin ditzake.



Hamaika ikerketek frogatu dute bruxismoa gizabanako bakoitzaren egoera emozionalarekin lotuta dagoela; hala, antsietatea edo estresa pairatzen duten pertsonak joera handiagoa dute patologia hori pairatzeko.

Bruxismoaren eraginak lasaitu eta haien kontra egiteko hainbat tratamendu daude, hala nola deskarga-ferula, hortzen lesioa saihesteko balio duena. Tratamendu honen helburua hortzen arteko bat-bateko ukitzea ekiditea da. Horrela, masailezureko artikulazioa deskargatzea lortzen da eta ez dugu minik sentitzen.

Bruxismoari edo bestelako patologiei buruzko galderarik baduzu, ez izan zalantzarik: deitu edo idatzi mesedez!

### ALDAZ HORTZ KLINIKA

San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar  
[iyd@dentalaldaz.com](mailto:iyd@dentalaldaz.com)

**943 366 377**

## OSASUN GIDAN PUBLIZITATEA JARRI NAHI DUZU?

### Gidan agertzearen onurak!

22€  
hilean

22€ren truke, hilero, zure osasun zentroaren irudia erakutsiko dugu **BARREN** astekarlan.

12  
aldiz urtean

**BARREN** astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleiho ikusiena.

4.885  
ale astero

4.885 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.

📞 943 744 112

📞 688 769 657



[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

Alfa Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk  
20870 ELGOIBAR

## Iñigo Cearsolok zuzenduko du bandaren domekako kontzertua

**E**lgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua emango du domekan, eta oraingoan Iñigo Cearsolo izango da zuzendaria. Aurrez Getariako, Durangoko eta Zumarragako bandak zuzentzeko aukera ere izan du Cearsolok, baina bere herriko banda zuzentzea "oso berezia" izango dela adierazi du. Gorka Mujikak eman dio aukera hau, eta "birritan pentsatu gabe" erantzun zuen baietz. Aitortu du entsegutan hasi zirenean bandaren ikuspegia erabat aldatu zitzaioela, eta errespetu handia sortzen duela bandakideen aurrean jartzeak. Dena dela, "ilusio eta gogo handiz" dago domekarako. Cearsolok 40 urte beteko ditu uztailean bandan, eta domekakoa opari urteurren horri aurreratutako oparia izango dela esan du. Hau izango da domekako egitaraua: *Recordando a un amigo* (P. Martínez),



 Jose Ramon Cabrera

*La gazza ladra* (G. Rossini), *Lau teilatu* (J. C. Perez- Mold. I. Urkizu), *The Beatles in concert* (Lennon-McCartney), *Nuovo cinema paradiso* (E. Morricone). 12:30ean izango da kontzertua, Herriko Antzokian.

### Dultzaineroen kalejira

Goizean, bestalde, Elgoibarko dultzaineroen diana izango da. 10:00etan hasiko da Kalegoen plazan, eta herrian zehar egingo dute kalejira.

## UEUk antolatutako ikastaroetarako dirulaguntzak banatuko ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak banatuko ditu Udako Euskal Unibertsitateak urtariletik apirilera bitartean Eibarko zein Iruñeko egoitzetan nahiz on-line emango dituen ikastaroak egiteko. Urtero bezala, askotariko jakintza arloak landuko dituzte, eta ikastaro guztiak irakasleentzat homologatutakoak izango dira. Dirulaguntzak Elgoibarren erroldatuta daudenentzat izango dira. Matrikula osoa ordainduko die Udalak

langabetuei, ikasleei, pentsiodunei eta jubilatuei, eta matrikularen erdia lanean dihardutenei. Kasu guztietan, ikastaro bakoitzeko, gehienez ere, 150 euroko dirulaguntzak izango dira. Dirulaguntza hori eskuratu nahi dutenek Euskara Sailera jo behar dute: 943 744 366 / [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus). UEUren eskaintza osoa eta bestelako jakingarri batzuk [www.ueu.eus](http://www.ueu.eus) helbidean kontsulta ditzakezue.

### 'Hobe ixilik!' antzerkia, otsailaren 10ean, Herriko Antzokian

*Hobe ixilik!* obra taularatuko dute otsailaren 10ean Herriko Antzokian. Txalo Produzioak konpainiaren obra da, eta Itziar Ituño eta Ramon Agirre dira aktore protagonistak. Bata zein bestea, biak ala biak, elkarri kontu-kontari eta, aldi berean eztabaidan arituko dira oholtzan. *Me Too*, aldaketa klimatikoa, amatasun subrogatua... Eztabaida dantzan dago, baina non eta nola eztabaidatzen den beste kontu bat da, eta horren harira jardungo dira antzezlanean. Nork esan dezake



zerbait? Noiz? Nori? Eta zer tenoretan? Emanaldia 19:00etan hasiko da. Sarrerak salgai daude dagoeneko [www.herrikoantzokia.eus](http://www.herrikoantzokia.eus) helbidean.

## Makila kolpeka lurra esnatzeko eguna da bihar, Santa Ageda bezpera



**M**akilak hartu eta lurra esnatzera irteteko eguna da bihar; kanturako eta eskerako eguna, nahiago bada. Gure bueltan Elgoibarko Izarrak bakarrik eutsi izan dio Santa Ageda bezpera egunez kantura irteteari, eta Etxegiña taldekoak eta Mendarokoak Santa Ageda egunetik gertuen jausten den zapatuan irten izan dira. Aurten, baina, zapatuan

egokitu da Santa Ageda bezpera, eta beraz, talde guztiak irtengo dira bihar kantura, makilak hartuta. Eskola-umeek bestalde gaur izango dute makilak hartu eta kanturako eguna. Elgoibar Ikastolakoak eta Mendaroko eskolakoak kalera irtengo dira gaur, eta Herri Eskolako LH5eko ikasleak Etxegiña taldekoei batuko zaizkie bihar.

### GAUR, HILAK 3, BARIKUA

**Mendaron:** kalera irtengo dira gaur eskola-umeak santa eskera. Azpilgoetan, txokolateri paretik, abiatuko dira kantuan LH3tik LH6ra artekoak, eta Herriko Enparantzan HH5etik LH2ra artekoak batuko zaizkie gero. Mendarozabalera joango dira handik eta hara irtengo dira 3 eta 4 urteko ikasleak, denek elkarrekin kantatzeko.

**Elgoibar ikastola.** 10:00etan irtengo dira ikastolatik eta adinka banatuta herriko leku ezberdinetarako bidea hartuko dute.

### OTSAILAK 4, ZAPATUA

**Mendaro.** 8:30ean plazan batu eta hiru taldetan banatuta Sahatzu mendiko, Garagartzako eta Mendarozabalgo baserriak koplaturiko dituzte. Beñat Lizaso, Amaia Agirre, Nerea Elustondo, Mikel Mendizabal, Iñigo Zubiaurre eta Aitzol Urain izango dira koplariak.

**Etxegiña.** Kalegoen plazan elkartuko dira, 9:00etan, eta kalez kale ibiliko dira kantuan

eta eskean. Herri Eskolako LH5eko ikasleak ere batuko zaizkie taldera aurten, eta biltzen duten dirua Caritasentzako izango da.

**Elgoibarko Izarra.** 60 lagunetik gora irtengo dira kantura. Hiru taldetan banatu eta lau baserri-azotako etxeak koplaturiko dituzte. Nagusien bi taldeak goizeko 9:00etan bilduko dira Kalegoen plazan; familiena, berriz, 11:00etan. Bi taldeek 15:00ak aldera arte jardungo dute kantuan eta eskean, eta gero denek batera bazkalduko dute Idotorbeko elkartean. Sei koplari jardungo dute kantuan Elgoibarko baserri atarietan: German Meabebasterretxea, Jabier Ziarda, Juan Mari Areitio, Uxue Alberdi, Juan Jose Eizmendi Loidisaletxe eta Ane Labaka. Hauei laguntzeko, berriz, hiru trikitilari bikote osatuko dituzte. Iñaki Olarte-Aitziber Larrañaga, Ander Agirrebeña-Agurtzane Mujika eta Naroa Iriondo, Lorea Iriondo, Leire Uranga-Eider Arizmendiarieta.



*“Egunero joaten naiz igerilekura;  
ordubeteen hiru kilometro egiten ditut  
lanera joan aurretik”*

## JOSEAN AGIRRE

Elgoibar Igeriketa Taldeko  
presidentea

✍ Ainhoa Andonegi  
📞 Ainhoa Andonegi / Josean Agirre

22 urteren ostean, Elgoibar Igeriketa Taldeko presidente kargua laga berri du Josean Agirrek (Elgoibar, 1961), baina ez horregatik igeriketa. Odolean darama. Gazte-gaztetatik egin du igeri, eta ez du bere bizitza igeriketarik gabe ulertzen. Egunero joaten da igerilekura, astelehenetik domekara, hutsik egin gabe. Goizeko 7:00etarako joaten da aste barruan, eta ordubete inguru egiten du igeri, hiru bat kilometro, lanera joan aurretik. Asteburuetan apur bat beranduago joaten da. Burua arintzeko eta osasuntsu mantentzeko balio dio igeriketak. Igerian ari denean bere buruarekin hausnarketa egiten du; lanari buruz edo eguneroko gauzei buruz pentsatzeko aprobetxatzen du tarte hori. Itsasoa ala igerilekuaz galdetzean, ez du zalantza izpirik izan: itsasoko kresala gustatzen zaio. Udan igeri zeharkaldiak egiten ditu han eta hemen, eta dagoeneko 100 baino gehiago egin ditu.

## **22 urte egin dituzu Elgoibar Igeriketa Taldeko presidente karguan. Nola iritsi zinen klubera?**

Gure bueltako umeak igeriketan zebiltzan eta esan ziguten txapelketetan parte hartzea nahiko luketela. Eskolarteko Kirolaren barruan lehiatzen ziren lehen, inguruko herrietako beste ikastetxeetako umeekin: Bergara, Oñati... Ramon Mujika Kirol Patronatuko zuzendariarekin jarri nintzen harremanetan eta esan zidan Elgoibar Igeriketa Taldearen ardura hartzeko aukera geneukala. Taldea sortuta zegoen ordurako, baina ez zeukan aktibitate handirik. Ideia ona iruditu zitzaidan eta guraso talde batek heldu genion taldeari. Nerea Juaristi, Jesus Espilla, Iñigo Barrenetxea eta nik. Norbait jarri behar zen presidente, eta neu izendatu ninduten. Kargu horretan egon naiz orain arte. Tarteka arbitro lanak ere egin behar izaten genituen, eta horretan prestatzeko ikastaroa egin behar izan genuen. Donostiara joan ginen, eta goiz batean prestatu gintuzten arbitro izateko. Elgoibarrek bat-batean bost edo sei arbitro zituen! Urte batzuetara Txema Rodriguez eta Marian senar-emazteak ere sartu ziren taldean, eta urte pila bat eman zituzten lanean.

## **Zeintzuk ziren taldearen egitekoak?**

Izen-emateak egiten genituen, dena eskuz, eta fax bidez bidaltzen genituen Donostiara. 22 urte hauetan lan egiteko modua asko aldatu da, eta gaur egun horretarako sortutako aplikazioei esker berehala egiten da. Horrez gain, hilabetean behin-edo seme-alabak inguruko herrietara eramaten genituen lehiatzera. Igeriketa Eguna antolatzen ere hasi ginen. Pentsatu genuen eskolak amaitu ostean polita izango zela igerilekuko ateak irekitzea Elgoibarko ume guztientzat. Proba batzuk jarri genituen nahi zuenak egiteko, eta bestela, urarekin kontaktua izateko. Ni arbitro nengoen, eta gogoratzen naiz ume bat etorri zela proba egitera. Galdetu nion ea igerian bazekien, eta berak baietz. Uretara salto egin, eta igerileku hondora joan zen, eta ez zen irteten. Arropa eta guzti salto egin behar izan nuen umea ateratzera! Bera irribarretsu irten zen uretatik, baina nik sekulako sustoa hartu nuen. Egun polit bat antolatu nahi, eta horixe bakarrik falta zitzaigun, ume bat itotzea! Dena ondo irten zen, ume guztiei dominak eta goxokiak banatu genizkien, eta ekimen horrekin aurrera jarraitzea erabaki genuen. Orain, Gabonen bueltan egiten

*"Igeriketa bakarkako kirola da  
eta horregatik ume askori  
kosta egiten zaie  
aurrera jarraitzea"*

dugu erronka solidario bat, herriko elkarteren bati laguntzeko.

## **Zer dela eta erabaki duzu kargua lagatzea?**

Jende berria sartu da orain taldean, oso jende ona, gogotsu daude, eta 22 urteren ondoren, oraintxe ikusi dut lagatzeko aukera. Elsa Sanchez, Maite Zabala, Iñaki Bizarro eta Josu Ansola izan ditut azkenaldian nire ondoan, eta orain beraiek hartu dute ardura. Edozertarako behar banaute, badakite hor naukatela, baina oso ondo moldatzen dira.

## **Zein egoeratan dago Igeriketa Taldea gaur egun?**

Ondo dago. Ikastaroetan jende asko dabil, eta hortik hartzen ditugu gero umeak Igeriketa Talderako. Orain dela hamar urte inguru, Xeber Uribe etorri zen Kirol Patronatura lanera, eta berak bultzada handia eman zion taldeari. Teknikoki oso ona da, eta bere ekarpena garrantzitsua izan zen. Umeekin oso ondo moldatzen da, eta masterren taldea ere sortu zuen. Masterren entrenatzailea da bera; bakoitzaren mailaren arabera sortu ditu taldeak. Masterren taldean igeri egitea gustuko duen edozein sartu daiteke, eta gero, norberak erabakitzen du lehiatu nahi duen edo ez. Umeen kasuan ere norberak aukeratzen du txapelketetan parte hartzea, nahi duenak bakarrik hartzen du parte. Kontua da igeriketa bakarkako kirola dela eta umeei zaila egiten zaiela aurrera jarraitzea. Aldageletan egoten dira elkarrekin, baina gero igerian bakoitza bere buruarekin bakarrik dago, eta askok hiruzpalau urteren ondoren laga egiten dute, taldeko kirolen batean hasteko. Igeriketatik asko joan izan dira futbolera edo eskubaloira, baina hiru edo lau urte egiten badituzte igeriketan, gu pozik! Urarekin harremanak lortzen dute, igerian ikasten dute eta hori betirako geratzen da. Kirol Patronatuarekin daukagun harreman ona ere nabarmendu nahiko nuke; eskertzekoa

da. Instalazioak erabiltzen uzten digute, dirulaguntza ere ematen digu Patronatuak eta guk saltzen dugun loteriarri esker, diru kontuak ateratzen zaizkigu.

### **Igerileku berria daukagu orain Elgoibarren. Zer iruditzen zaizu instalazio berria?**

Sekulakoa da! Elgoibarren igerilekua egiteko ideia lantzen hasi zirenean, Madrilera joan ginen hango instalazioak ikustera. Ricardo Garate, Alfredo Etxeberria orduko alkatea, Luis Agirregomezkorta judoko irakaslea, Udaleko zinegotzi batzuk eta ni. Ostiralean irten ginen autobusez Elgoibartik, eta han pasatu genuen asteburua. San Sebastian de Los Reyesen ikusi genuen igerilekua sekulakoa iruditu zitzaidan. Zeukan igerileku bat erdia estalia eta beste erdia aire librean. Elurra egin zigun asteburu hartan, eta igerian zeundela elurra ukitzeko aukera ematen zuen. Beste guztiak kafetegian geratu ziren, baina ni igeri egitera sartu nintzen. Nire maletan beti sartzen ditut bainujantzia, txapela, betaurrekoak eta txankletak, eta orduan ere nirekin eraman nituen. Ezkontza-eraztuna galdu nuen aldagelan, normalean beti kentzen dut igeri egiteko, baina kasualitatea, orduan ez nuen kendu eta batere gabe itzuli nintzen. Euskal Herrian ere bisitatu genituen beste igerileku batzuk, Tolosakoa esaterako. Nik sei kaletako igerilekua eskatzen nuen Elgoibarrerako, eta alboetan spa moduko zerbait, badakizu, adinean aurrera goaz eta lasai egoteko gune bat igeri egin ondoren. Azkenean zortzi kalekoa egin zuten, eta izugarri ondo geratu da. Hamabi kale ditugu orain, eta hala ere, garai batzuetan dena tope egoten da. Urtarrilean eta irailean ibiltzen da jende gehien igerian.

### **Nola hasi zinen zu igerian?**

Betidanik gustatu izan zait ura. Mendira joatea ere gustatzen zait, eta nire erritmoan



*Elgoibarko igerilariak Getaria-Zarautz itsas zeharkaldian.*

ondo ibiltzen naiz, baina nire fisikoa dela-eta, askoz hobeto moldatzen naiz uretan. Ez naiz nekaten, nire erritmoan egiten dut igeri, diesela naiz, lasai-lasai egiten dut igerian, gozatzen. Egutero joaten naiz igeri egitera, astelehenetik igandera eta abuztuan, kiroldegia itxita egoten denean, itsasoan egiten dut igeri. Lanera joan aurretik joaten naiz igerilekura, eta ordubetez aritzen naiz igerian. Hiru kilometro egiten ditut egutero, astean 20 bat. Urtean badira batzuk! Igerilekuko kuota merkeen ateratzen zaion herritarra naiz! Abuztuko oporretan ere egutero egiten dut igeri. Goizean apur bat, gero familiarekin gosalduta, hondartzara joan eta eguzkitan egunkariak irakurtzea ere atsegin dut. Bazkaldu aurretik berriz egiten dut igeri eta

arratsaldean ere bai. Droga bat da niretzat igeri egitea, engantxatuta nago.

### **Igerilekuan ala itsasoan igeri egitea gustatzen zaizu gehiago?**

Itsasoan, dudarik gabe. Gatza gustatzen zait, kresala. Errespetua eduki behar zaio itsasoari, eta korronteeekin adi ibili, baina oso polita da itsasoan igeri egitea. Ez dauka igerilekuarekin zerikusirik. Itsasoko zeharkaldiak egitea asko gustatzen zait. Orain dela 20-21 urte egin nuen lehenengoa, eta ordutik urtean bost edo sei egiten ditut. Ehundik gora egin ditut dagoeneko. Lehenengoa Mutriku-Deba izan zen. Iñaki Kondek animatu ninduen, eta ordutik urtero egiten ditut. Euskal Herrian Plentzia, Bermeo, Deba, Ondarru, Lekeitio, Getaria, Donostia... pila bat egin izan ditut. Getaria-Zarautz trabesia 20 urte jarraian egin dut, baina Getarian badago beste trabesia bat asko gustatzen zaidana: San Anton trabesia, arratoiaren inguruan egiten dutena. Hondartza batean hasi, arratoiari buelta eman eta beste hondartzan bukatzen da proba. Arratoiaren atzeko alde horretan igeri egitea oso polita da, itsasoa garbi dagoenean behelalde guztia ikusten da, arrainak-eta; sekulako gozamen! Euskal Herritik kanpora, Nojan ere egin izan dut zeharkaldiren bat, eta Kanariar Uharteetan ere bai. Abuztuan Tenerifera joaten gara oporretan pare bat astez, eta joan aurretik beti begiratzen dut han inguruan ea zeharkaldirik dagoen. Baldin badago, izena ematen dut. Alabarekin egin nuen han zeharkaldi bat, eta oso polita izan zen. Hasi aurretik txantxetan jardun nuen berarekin, irabazi egingo niola esanez, baina berak ni baino hobeto egin zuen. Zeharkaldi guztien ondoren, bazkari eder bat egiten dugu, senideekin, lagunekin edo parte hartu dugunekin. Inguruko jate txeh on batera joan, eta hango arraina jatea izaten da onena. Zeharkaldietan lagun asko egin ditut, azkenean beti berberak elkartzeko gara askotan, eta harremana sortzen da. Orain, Gipuzkoako Igerilari Helduen Elkarte sortu dute, eta han sartzeko, bertako kideren batek gonbidatu behar zaitu. Hondarribiko baten bidez sartu naiz. Donostiako zeharkaldia egin ondoren egiten dugu bilera, eta gero, nola ez, sagardotegian bazkaria. Carlos Santana donostiarra da presidentea. Ezaguna da, 50 urtez segidan hutsik egin gabe egin du Getaria-Zarautz zeharkaldia eta iaz omenaldia egin

*"Elgoibarrek sekulako kiroldegia dauka.  
Hamabi kale daude guztira,  
eta hala ere, garai batzuetan  
topera egoten dira"*

zioten. Bere semea jaio zen egunean ere ez zuen hutsik egin. Emaztea ospitalean zegoen eta esan zion proba egin ondoren joango zela. Iazko edizioan semeak ere hartu zuen parte, bere urtebetetze egunaren bueltan.

### **Alabarengatik sartu zinen Igeriketa Taldeko zuzendaritzan. Transmittitu al diozu alabari zure zaletasuna?**

Baietz uste dut; gustatzen zaio. Igeriketa laga zuen eskubaloian hasteko, baina urte batzuetara waterpoloan hasi zen, Eibarren. Gustatzen zaio ura. Zaletasuna alabari pasatzeak ilusioa egin dit.



*Josean bera, bigarrena lerroan,  
itsas zeharkaldi bat bukatu berritan.*



## Alcorta eta Gaurve sailkapeneko azken postuetatik irten ezinik

**D**enboraldi gogorra izaten ari da Sanloko bi talde nagusientzat, Gaurve Asesores Elgoibar eta Alcorta Forging Group taldeentzat, azken postuak atzean laga ezinean dabiltzalako. Gaurvek denboraldi honetan jokatu dituen hamazazpi partidak galdu ditu Zilarrezko Ohorezko mailan, eta azken postuan dago. Lagunak taldea (8 puntu) eta Mecalbe Eibar (9 puntu) dituzte sailkapenean gertuen, liga bukatzeko bederatziz jardunaldiren faltan. Emaizta horiek, baina, ez dituzte ezustean harrapatu taldeko arduradunak. Erabat berritu zuten taldea denboraldi honetarako eta harrobiko jokalariekin osatzea erabaki zuten (gehienek 17-18 urte artean dituzte). "Badakigu kirol emaitzak ez direla onak, baina hasieratik garbi geneukan oso zaila izango zela daukaguna moduko talde gaztearekin emaitza onak lortzea, lehiakortasun handiko maila baita Zilarrezkoa. Jubenil mailan lehiatuzetik Zilarrezko mailara jauzi handia dago, oso, bai jokatzeko moduan eta baita jokalarien fisikoetan ere. Ikasteko, esperientzia hartzeko eta jokalaria zailtzeko denboraldia da aurtengoa", azaldu du Lorea Gabilondo entrenatzaileak. Aurkarien paretsu ibili dira hainbat partidatan, baina azken momentuetan igarri dute eskarmentu falta, eta hori izan da punturik lortu ez izanaren arrazoi nagusia. Edonola ere, taldea egiten ari den lana goraiatu du Gabilondok eta jokalaria gazteentzako aurtengoa irakaspen handia izango dela nabarmendu.

### Alcorta, berpizten

Emakumezkoen egoeraren antzerakoa bizi du Alcortak, gizonezkoen Lehen Nazional mailan. Orainsu arte azken postuan egon dira, baina azken bi jardunaldietan Egiaren aurka berdindu eta Ereintzari 21-22 irabazi eta gero, azkenaurreko postuan daude orain, 6 punturekin. Jokaturako hamazazpi partidetatik bi irabazi, bi berdindu eta hamahiru galdu dituzte. Hala eta guztiz ere, aurretik dituzten taldeak ez dituzte urrunegi ere: Barakaldo Indepcak eta Tarazonak 9 puntu dituzte. Bi taldek galduko dute maila. Hurrengo jardunaldian, otsailaren 4an, Casademont Tarazonaren aurka jokatu du Alcortak Olaizaga kiroldegian. Zigor Esnaola entrenatzaileak esan du hasieratik mailari eustea izan dela euren helburua: "Bagenekien zaila izango zela, jokalaria gazteak ditugulako, maila honetan esperientzia gutxiak. Iaz eman genuen maila onaren ondotik ilusioz ekin genion denboraldiari, eta txukun aritu ginen lehen jardunaldietan, baina kantxan egin nahi genuen jokoa ezin eginda ibili gara orainsu arte, eta lesioek ere ez digute lagundu. Bigarren itzuliko lehen partidetan lortu dugu berriro lehiakorrek izatea, lasaiago jokatuz eta akats gutxiago eginez. Eta, hala, gehiago gozatzen dute jokalariek. Talde giro polita daukagu, alde horretatik ez daukagu aitzakiarik. Bost edo sei talde gaude beheko tropel horretan, maila ez galtzeko borrokan sartuta. Azken partidetan erakutsi dugun dinamikari segida ematen badiogu emaitza onak lortzeko aukera gehiago izango dugula uste dut".



## Elgoibarko Mendi Itzuliko ibilbidea berriz markatu du Morkaikok


Elgoibarko Mendi Itzulia (orain arte PR-Gi-157 zena) egin ahal izateko markak berritu ditu Morkaiko mendi taldeak, hori koloreko puntuekin. Morkaikotik jakitera eman dutenez, PR ibilbidea izateari laga dio Elgoibarko Mendi Itzulia ibilbideak. PR laburdura frantseseko Petite Randonnée-tik dator: ibilbide laburrak dira, seinalatuak eta homologatuak. "Homologazioari eustea zaila zen, eta gainera beste PR eta GR (Grande Randonnée) ibilbideekin nahasten omen zen". Hortaz, mendi ibilbidea izango da aurrerantzean. Udalarekin adostutako hitzarmen bat dutela ere jakinarazi dute, joan den udan sinatua, eta horren arabera, Udalaren ardura izango da bidea egoera



onean mantentzea eta Morkaikoren markak mantentzea. Zehaztu dutenez, Morkaikoren Egunaren barruan egiten den Elgoibarko Mendi Itzuliaren ibilbide oso antzekoa den arren, ez da Kalamuako tontorretik igarotzen, baina bai ordea Idotorbetik. Aurtengo Morkaikoren Eguna maiatzaren 13an izango dela aurreratu dute.

## Imanol Garcandiak brontzeko domina lortu du Espainiarekin mundialean

Munduko eskubaloi txapelketa jokatu dute azken asteetan Polonian eta Suedian. Domekan jokatu zuten finala Frantziak eta Danimarkak eta eskandinabiarrek lortu zuten titulu, hirugarrena jarraian, frantziarrei 29-34 irabazita. Espainiak irabazi zuen brontzea, Suediari hirugarren posturako partida



irabazita (39-36). Espainiako taldearekin aritu da txapelketan Sanloko jokalaria ohi Imanol Garcandia Alustiza (Urretxu, 1995), eta zoriondu egin dute Sanlokoek. Urolan lehen pausoak eman ostean, Garcandiak bi denboraldi egin zituen Sanlon, 2013tik 2015era bitartean, Juanma Lopez entrenatzailea zela. Hungariako Pick Szeged taldean jokatzeko du egun.

## Euskal pilota egokituko paleta topaketa, zapatuan

Desgaitasuna duten pertsoneri zuzendutako euskal pilota egokituko paleta topaketa egingo dute otsailaren 4an, zapatua, Elgoibar Ikastolako pilotalekuetan. Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak Elgoibarko Udalaren babesarekin antolatuko du topaketa eta 10:30ean hasiko da.

**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

Esperientzia eta beharrezkoak diren tituluak ditut. **631 319 476**

Umeak edo adinekoak zaintzen egingo nuke lan eta garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Esperientzia daukat **685 724 861**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, Elgoibarren, Eibarren, Mendaron nahiz Soraluzen. Gauzez ere bai. **605 402 030**

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. **641 322 939**

Adinekoak zein umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota sukaldatzen, eraikuntzan, lorazaintzan... lan egiteko prest nago. **613 231 917**

Adinekoak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko, edota sukaldatzen, eraikuntzan, lorazaintzan... lan egiteko prest nago. **604 881 745**

Adinekoak zainduko nituzke gauetan edo asteburuetan. **651 432 384**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, gauetan edota asteburuetan. Esperientzia. **631 085 827**

Adinekoak zainduko nituzke. Etxeko langile moduan. Esperientzia handia. **666 493 717** (Maria)

Adinekoak zainduko nituzke, etxeko langile moduan, orduka edo gauzez. Titulu soziosanitarioa daukat, eta paperak legez. **631 425 686**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat lanotan eta berehala hasteko moduan nago. Orduka zein egun erdiko lanaldian. **632 415 374**

Gizonezkoa lan bila. Edozein lan egiteko prest nago. Nekazal ingeniaria naiz, gidabaimena daukat eta paperak legez. Malgutasun osoa eta lanerako gogo handia. Banatzaile, lorezain edo beste edozer egiteko prest nago. **658 782 715**  
**747 474 354**

**Eskaintza**

Pertsona bat behar da umeak zaintzeko, goizez, umeak eskolara eraman bitartean. **637 951 010**

Adineko bat zaintzeko pertsona baten bila gabiltza, etxeko langile moduan lan egiteko. **688 678 934**

Batxilergoko 1. mailako ikasle bati matematika eta fisika eskola partikularrak emateko pertsona bat behar dut. **669 339 529**

**GARAJEAK**

Garaje itxia alokatzen dut Urazandin. **943 531 131**

**ETXEBIZITZA**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **659 083 325**

**BESTELAKOAK**

Scooter elektrikoa invacare Orion modeloa saltzen da. Pertsonalizatua, larruz egokitutako eserlekuarekin. **659 329 118**



**administradores** Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzko Eskola Administrazioaren Lanbide-Itasuntza



**ROSA Mª PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosap@telefonica.net**

**Gure etxerako ura dakarren hodian ihes bat izan dugu komunitatean, eta eskailerako tranpalera isuri da ura. Jakin nahiko nuke zeini dagokion hodia konpontzea.**


Zuk esandakoaren arabera, isuria zuen etxetik kanpora izan da. Hortik ondoriozta dezakegu hodi horrek zuen etxeko loturara aurreko zatian izan duela zuloa.


Beraz, egiaztatzen bada hodia zuen etxe barruko loturara aurreko zatian zuluta dela, komunitateak ordaindu beharko du konponketa, elementu komun batetaz ari garelako.

**AHOLKUA: Orokerrean, erantzukizuna komunitatearena edo partikular batena den jakitzeko matxura gertatu den lekua zehaztu behar da, hodi nagusitik partikularrera arteko zatian non izan den zehazki alegia. Praktikan eta teknikoki nahikoa erraza da hori jakitzea. Edozein kasutan, profesional batek zehaztuko dizu matxura non izan den eta horren arabera zehaztuko da gero nori dagokion konponketa gastuak ordaintzea.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Jakes**, igandean 8 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat familiako guztion partez.



Zorionak, **Mikel**, bihar 4 urte beteko dituzulako. Muxu potolo bat familia guztia eta, bereziki, Lukenen partez.




Astelheanean urtetxo bat bete zenuelako, zorionak, **Gilen!** Muxu pila bat, etxekoan partez.



Zorionak, **Nora!** 3 urte handi! Ondo-ondo pasa! Patxo handi bat.



Zorionak, **printzesa**, gaur 3 urte bete dituzulako. Familiako eta bereziki, neba Jon, lehengusu Mikel eta lehengusina Nerearen partez.



Zorionak, **printzesi!** 4 urtetxo bete berri atzo, neska handi! Muxu potolo-potolo bat etxekoan eta bereziki, Lucia, Jon eta Eiderren partez.



Zorionak, **Bittor**, asteazkenean zure urtebetetze eguna izan zelako. 10 urte handi! Muxu pila bat familiako denon partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Unax!** 7 urte jada! Muxu eta besarkada handi bat familiako guztion partez.



5 urte handi, San Blas txiki! Zorionak, **Liber!** Ilargiraino eta buelta maite zaitugu!



Txinpartak ateraz, landu 9 pottolo horiek! Zorionak, **Lur!** Denok maite zaitugu.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



## %25

eko beherapena  
edozein izara  
eta mantetan!



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar  
[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

### 3 BARIKUA

**10:00** San Blas Eguna. Opilak bedeinkatzea (mezarik gabe). San Bartolome Parrokian.

**10:00** Santa eskera irtengo dira Elgoibar ikastolakoak.

**14:45** Santa eskera irtengo dira Mendaroko eskola-umeak.

**19:00** San Blas opilak bedeinkatzeko meza. San Bartolome parrokian.

**19:00** San Blas Eguneko meza Azpilgoetan, Mendaron. Opilak eta kandelak bedeinkatuko dituzte.

### 4 ZAPATUA

**8:30** Herriko Enparantzatik abiatuko dira Mendaron santa eskera, hiru taldetan banatuta.

**9:00** Santa eskea herrian eta baserri auzoetan. Kalegoen plazatik abiatuko dira Etxegiña taldekoak herriko kale eta auzoetara, eta Elgoibarko Izarrako nagusien bi taldeak, baserri auzoetara.

**9:00** Baso Biziak elkarteak deituta, Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira, Muskirutzura arbolak sartzera joateko.

**11:00** Santa eskea, familian. Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak Aisialdi Taldeak antolatuta, Idotorbe auzora joango dira eta hango hainbat baserri koplaturiko dituzte.

### 5 DOMEKA

**10:00** Dultzaineroen diana. Kalegoen plazatik.

**12:30** Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian. Iñigo Cearsolok zuzenduko du kontzertua.

### 8 EGUAZTENA

**17:00 eta 17:30** Itziar Saenz de Ojer ipuin kontalaria: 'Kontuak, kantuak... eta zenbait xelebrekeri!'. Lehen saioa LH1ekoentzat eta bigarren saioa LH2 eta LH3koentzat. Aita Agirre kulturgunean.

### 10 BARIKUA

**19:00** Antzerkia: 'Hobe ixilik!'. Txalo Produzioak taularatuko du, Herriko Antzokian.

## Zinea



#### "M3gan"

3 barikua: 19:00

4 zapatua: 19:00 / 22:15

5 domeka: 19:00

6 astelehena: 21:00

#### "Misión H2O"

5 domeka: 16:30

#### "Suro" (Ongarri)

8 eguaztena: 21:00

**2023ko botika ordutegiak:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OHARRA: 2023an ez da iluntzeko farmazia zerbitzurik egongo Elgoibarren.

#### URTARRILA

3 BARIKUA

4 ZAPATUA

5 DOMEKA

6 ASTELEHENA

7 MARTITZENA

8 EGUAZTENA

9 EGUENA

10 BARIKUA

#### Egunez

Garitaonandia

Arriola

Arriola

■ Fernandez

Yudego

■ Oruesagasti

Barrenetxea

■ Ibañez

**2023 urte guztian, gaeuz: 22:00-09:00**

**Cristina Sanchez Castaño - Julian Etxeberria, 7 (Eibar)**

**943 203 052**

■ Fernandez:

Herriko Enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:

Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:

Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384



Laia  
Isasti  
Huidobro

5 urte, Elgoibar



*"Futbola eta familia"*



Danel  
del Rey  
Fernandez

5 urte, Elgoibar



*"Ama oihanean"*



Aste honetako erretratu zaharra Maria Angeles Zabalak ekarri du BARRENEko erredakziora. 1956. urtekoa da, bera jaio eta urtebete ingurura ateratakoa. Soraluzen aterata dago, hain zuzen ere, gaurko egunez, San Blas egunez. Maria Angeles bera da argazkiko umea, eta amak, Emilia Morillok (†), du besoetan. Soraluzen tradizio handiko eguna da San Blas eguna, eta garai hartan ere opilak bedeinkatzeko ohitura bazuten. Argazkiko ama-alabak meztatara zihoazen momentuan ateratako argazkia da hau. Maria Angeles Zabalari izeba batek erakutsi zion sanblasak egiten, eta urtero egiten ditu. Urteren batean, 60 kilo ere egin zituela adierazi du. Soraluzeko San Blas opil lehiaketa ere behin baino gehiagotan irabazitakoa da.





### *Mari Tere Alzibar Uribarren*

2023ko urtarrilaren 31n hil zen, 88 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Erreza izan zen zu maitatzea,  
ezinezkoa ordea zu ahaztea.***

Etxekoak




### *Mariasun Ulazia Soraluze*

2023ko urtarrilaren 26an hil zen, 78 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure oroimenak indartzen gaitu.***

Etxekoak




IX. URTEURRENA

### *Idoia Laka Lizaso*

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

***Izan zarenagatik  
eta erakutsi duzunagatik,  
ez zaitugu inoiz ahaztuko.***

Etxekoak



2023KO OTSAILAREN 18AN

# ATXUTXI KARAOKEA

MAALAKO PARKEAN  
17:30-19:00



2023KO OTSAILAREN 18AN

# BERTSIO GAUA

Sariak:

Taldeko 1. saria: 250€

Taldeko 2. saria: 170€

Bakarkako saria: 170€

Sari berezia: 150€

00:00-02:00

MAALAKO PARKEAN

Izen ematea aurrez edota egunean bertan

Informazioa: [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus)

☎ 747489048

